

Iñaki Arbulu Olabarria

Antzuola, Gipuzkoa (1963-2010) arbulu_2

Aurkibidea

Biografia

arbulu_2 Ondarren jaio zen 1963an. Familian, aitajaunengandik hasita, denek lan egin dute larrugintzan. Aitaren aldeko aitajauna "Galarza hmnos., Arbulu y cía" larrugintzako lantegiaren sortzaileetakoa izan zen; baina amaren aldeko aitajaunak ere larrugintzan lan egiten zuen, Olanan.

Zintak

ANT-099

- **Proiektua:** Larru ontzea Antzuolan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirresarobe, Asier - Tellabide, Josu
- **Data:** 2006-01-01
- **Iraupena:** 45 min
- **Euskarria:** DVD
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea

Pasarteak

1. "Galarza, hermanos Arbulu y cía" larrugintza-lantegiaren sorrera

- **Erref:** ANT-099/003
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:09:00. **Bukatu:** 00:10:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

"Galarza, hermanos Arbulu y cía" larrugintza-lantegia izan zena beraien aitaren aldeko aitajaunak sortu zuen. 1920 urte inguruan sortu zuten Bareño lantegiko zati batetik sortua. Beraiek 15 bat langile ezagutu zituzten bertan.

2. "Galarza, hermanos Arbulu y cía"n larrua ontzen zuten

- **Erref:** ANT-099/004
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:10:00. **Bukatu:** 00:11:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

"Galarza, hermanos Arbulu y cía" lantegian larrua ontzen zuten bakarrik, ez zuten ez lantzen ezta tresnarik egiten ere. Enkanteetatik ekarritako behien larrua erabiltzen zen.

3. "Galarza, hermanos Arbulu y cía" lantegiaren egitura

- **Erref:** ANT-099/005
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:11:20. **Bukatu:** 00:11:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

"Galarza, hermanos Arbulu y cía" lantegiaren egitura azaltzen dute.

4. Hezurra eta haragia bereizi eta larrua ondu

- **Erref:** ANT-099/007
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:12:06. **Bukatu:** 00:13:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

"Galarza, hermanos Arbulu y cía" larrugintza-lantegian hezurra eta haragia makinaz bereizten zituzten. Larrua zelan ontzen zuten azaltzen dute.

5. Larrua ondu osteko prozesua eta haizearen garrantzia

- **Erref:** ANT-099/010
- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 00:15:27. **Bukatu:** 00:19:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- Natura » Meteorologia

Laburpena:

Larrua ondu ostean, azido batzuen bitartez garbitu behar izaten zuten. Larrua gogor-gogorra geratzen zen eta koipeztatu egin behar izaten zuten. Lehenago eskuz koipeztatzen zuten, baina gerora ez. Larru hori behin eta berriro tiratu eta lehortu behar izaten zen prozesua bukatutzat emateko. Lehortzeko makina garbitu ostean erabiltzen zuten, bestela koipeztatu ostean makina pasatuz gero, koipea kenduko litzateke. Horretarako prestatutako gela batzuk zituzten eta haizearekin kontuz ibili behar izaten zen hego haizea txarra baita. Hego haizeari "gozakaiztu" esaten zieten: azkarregi lehortzen zuen. Iparrekoa da ona. Hego haizea egonez gero, askotan joan behar izaten zuten larruak mugitzera. Kako batzuetan eskegitzen zituzten.

6. Neguan ura hotz zegoenez erritmoa ez zen berbera

- **Erref:** ANT-099/012
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:19:24. **Bukatu:** 00:20:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

Urte osoan zehar egiten zuten lan bera "Galarza, hermanos Arbulu y cía" larrugintza-lantegian. Hala ere, negua ez zen sasoi ona ura ere hotz egoten zelako eta larru ontzeko ez zelako egokiena, denbora gehiago behar zuen. Jose Angelek kimika ikasketak egin zituen eta aita hil zenean berak hartu zuen lantegiko martxa.

7. Larrua non erosi

- **Erref:** ANT-099/014
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:22:02. **Bukatu:** 00:23:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak
- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:

Larrua erosteko bi sistema zeuden: batetik, hiriburuetan egiten ziren enkanteetan; eta, bestetik, larru-saltzaileei. Hiriburuetako enkanteak aurretik zehaztuta, adostuta, egoten ziren. Hiltegiaren astearen pare bat baino ez zituzten erosten. Hiltegitik larrua eskorgan ekartzen zuten odola zeriola. Zabalduta eta gatzarekin eman behar izaten zieten.

8. Kristala, plantxa eta kortxoa larrugintzarako

- **Erref:** ANT-099/017
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:25:24. **Bukatu:** 00:26:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

Beraien larrugintza lantegian erabiltzen zuten hainbat material aipatzen dituzte: kristala, plantxa eta kortxoa. Larrua mehetzeko makina bat zuten. Kortxoak larrua bigundu egiten du eta errazago maneiatu daiteke. Esaterako, abarketaren narruak dituen zimurrak kortxoa erabilita lortzen dira. Kristala distira emateko erabiltzen zuten.

9. Lantegiko makinak

- **Erref:** ANT-099/019
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:27:02. **Bukatu:** 00:28:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

"Galarza, hermanos Arbulu y cía" larrugintza-lantegiko makinak motorrarekin zebiltzan, danak bonbo batekin eta uhalek denak jartzen zituen martxan. Antzuolako Jose Mari eta Felix Larreak, Larrea aroztegiek, egin zizkien. Gainerako makinak kataluniarrak ziren, Badalona ingurukoak. Tailerrekoek eurek konpontzen zuten konpondu beharrekoak, ez ziren kanpoko teknikoak etortzen.

10. "Galarza, hermanos Arbulu y cía"ko langileak

- **Erref:** ANT-099/021
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:28:52. **Bukatu:** 00:31:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

"Galarza, hermanos Arbulu y cía" larrugintza-lantegian beraien familiako hainbat kide aritu ziren lanean, zazpi bat. Galarza familiako lau kide ere bazeuden lanean. Familietatik kanpo hiru bat langile gehiago zeuden. Beraiek ez dute emakumezkorik ezagutu lanean, ez baitzuten larrua lantzen.

11. Larrua zelan eta non saltzen zuten

- **Erref:** ANT-099/023
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:31:32. **Bukatu:** 00:33:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

Larrua bi zatitan erdibitzen zuten eta gero beste lau zati egiten zituzten eta horrela saltzen zuten larrua. Nora saltzen zuten ere azaltzen dute. Agente komertzialak ere bazituzten.

12. "Galarza, hermanos Arbulu y cía" lantegia itxi zenekoa

- **Erref:** ANT-099/026
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:35:31. **Bukatu:** 00:37:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

Lantegia 1986-1987 urte inguruetan itxi zuten. Lantegia zahartzen zihoan eta inbertsio handiak behar zituen eta ez zuten beste irtenbiderik ikusi. Lege berriek ere baldintza berriak exijitzen zituzten eta lana oso gogorra zen.

13. Lantegiko ura

- **Erref:** ANT-099/028
- **Iraupena:** 0:00:31. **Hasi:** 00:39:30. **Bukatu:** 00:40:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

Antzuolako larrugintza-lantegi bakoitzak bere ura zuen, ura ezin zen errekatik hartu.

14. Beti euskaraz, baina hitz teknikoak erdaraz

- **Erref:** ANT-099/030
- **Iraupena:** 0:00:43. **Hasi:** 00:40:21. **Bukatu:** 00:41:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

"Galarza, hermanos Arbulu y cía" larrugintza-lantegian beti egiten zuten euskaraz, baina hitz teknikoak erdaraz erabiltzen zituzten.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-19

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com